

EGUESIBARKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

2022/2023. IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA

1. MATRIKULAZIO EGUTEGI LABURTUA.

- Matrikulazio kanpaina EGUTEGI honen arabera garatuko da:

1) Martxoaren 21etik apirilaren 4ra (biak barne): AURREKO URTEKO IKASLEEK MATRIKULA BERRITZEA.

2) Maiatzaren 9tik 20ra (biak barne): IKASLE BERRIEK AURRETIK MATRIKULATZEA.

3) Maiatzaren 25etik aurrera: Zozketetan lekua lortu duten IKASLE BERRIEK BEHIN BETIKO MATRIKULA EGITEA.

- Leku berriak jendaurreko zozketa bidez baizik ez dira esleituko, dokumentu honetan adierazitakoari jarraikiz.
- 2021-2022ko ikasturtean Musika Hastapeneko 4. maila egin duten aurreko urteko ikasleek berriazko epea izanen dute matrikulatzeko. Era berean, lehentasuna izanen dute ikasle berrien aldean.

1

2. INFORMAZIOA ETA INPRIMAKIAK.

- IKASLE BERRIAK: Udalaren webgunetik PEDAGOGIA PLANA eskatzen ahalko dute. Izena emateko eta matrikulatzeko inprimakia eskolan jasotzen ahalko dute, edo, bestela, Udalaren webgunetik behera jaitsi.
- AURREKO URTEKO IKASLEAK: irakasle-tutoreak emanen dizkie oinarrizko informazioa eta inprimakia. Era berean, PEDAGOGIA PLANA Udalaren webgunean kontsultatzen ahalko dute.

3. MATRIKULATZEKO PROZESU XEHATUA.

A) **MARTXOAREN 21ETIK APIRILAREN 4RA (biak barne)** BITARTEKO EPEA: AURREKO URTEKO IKASLEEK MATRIKULA BERRITUKO DUTE, Musika Hastapeneko 4. mailakoek izan ezik.

Musika Hastapeneko ikasleek (1, 2, 3.) aurreko ikasturteko talde berean berrituko dute matrikula. Denboraldi horretan taldez aldatzeko eskatzen ahalko du ikasleak, betiere leku liberrik baldin badago. Horregatik, hain zuzen, aurreko urteko taldean berritu beharko du matrikula, lekua izanen duela bermatu nahi badu.

B) M.H.4. MAILAKO AURREKO URTEKO IKASLEAK, PLAZA HUTSAK ARGITARATZEA, AURRETIK IZENA EMATEA, ESLEIPEN ZERRENDA ETA MATRIKULAZIOA.

APIRILAK 27: musikatresnetan **HARTU GABEKO PLAZAK** ARGITARATZEA.

APIRILAK 27 ETA 28: Musika Hastapeneko 4. maila ikasi duten aurreko urteko ikasleek **AURRETIK IZENA EMATEA**. Nahi dituzten musikatresnetan eman beharko dute izena lehenik, lehentasun ordena jarrita. Ordena horri jarraikiz musikatresna batzuk markatzen ahalko ditu ikasleak, betiere orden horri jarraikiz.

Zuzendaritza Taldeak lehentasun ordena kontuan hartzen duen programa informatiko bat erabiliko du musikatresnaren esleipen zerrendak egiteko. Ikasle bakoitzaren lehentasuna kontuan hartzen duen azterketa baten bidez eginen dira zerrenda horiek.

Irakasle klaustroak Udalaren balorazio batzordearekin batera eskubidea izanen du beti hainbat arrazoiengatik musikatresnen aukera osoa erabili ezin duten ikasleei leku bat bermatzeko.

MAIATZAK 3: esleipendunen zerrenda Musika Eskolan argitaratzea.

MAIATZAK 3 eta 4: BEHIN BETIKO MATRIKULA EGITEA (MATRIKULAZIOAREN 1. DEIALDIA).

MAIATZAK 5 eta 6: esleitutako musikatresnari uko egiten dioten ikasleek behin betiko MATRIKULA eginen dute. Beste esleipendun batzuek uko egiteagatik libre gelditzen diren lekuen arabera. (ITXARON ZERRENDA BIDEZKO MATRIKULA).

C) **MAIATZAREN 9TIK 20RA (biak barne)** BITARTEKO EPEA: **IKASLE BERRIEK** AURRETIK IZENA EMATEA (eta musikatresnaz aldatu nahi duten aurreko urteko ikasleak eta bigarren musikatresna bat ikasi nahi duten aurreko urteko ikasleak. Era berean, musika taldea soilik hautatzen dutenek ere eskatzen ahalko dute lekua).

MAIATZAK 11: Musikatresnetan eta Musika Hastapenean **HARTU GABE** gelditu diren **PLAZAK ARGITARATUKO DIRA**.

D) **MAIATZAREN 25ETIK AURRERA**, eta urrira arte: LEKUA LORTU DUTEN **IKASLE BERRIEK** EGINEN DUTE **MATRIKULA** (eta musikatresnaz aldatu nahi duten aurreko urteko ikasleak eta bigarren musikatresna bat ikasi nahi duten aurreko urteko ikasleak).

MAIATZAK 25: Musika Eskolan **JENDAURREKO ZOZKETA** izanen da **12:00etan**. Zozketaren bidez musikatresna bakoitzarendako zerrendak eratuko dira, baita Musika Hastapeneko talde bakoitzarenak ere.

OHARRA: zozketa egin aurretik zerrendetan lehenbizi sartuko dira maiatzaren 4ko esleipen zerrenda argitaratu ondoren lehenbiziko deialdian matrikulari uko eginik itxaron zerrendan egotea hautatu zuten aurreko urteko ikasleak, Musika Hastapena ikasi zutenak, hain zuzen. Bestalde, bigarren musikatresna ikasteko eskatu duten aurreko urteko ikasleak zozketa egin ondoko zerrendaren azken lekuetan sartuko dira.

MAIATZAK 25 eta 26: maiatzaren 25eko zozketan plaza lortu duten ikasleek **BEHIN BETIKO MATRIKULA** EGINEN DUTE. (MATRIKULAZIOAREN 1. DEIALDIA)

MAIATZAREN 27TIK aurrera, eta urrira arte: aurreko atalean azaldutako zerrendak hasiko dira mugitzen, hartu gabeko lekuekin bai eta uko egin ondoren libre gera litezkeenekin ere (ITXARON ZERRENDA BIDEZKO **MATRIKULAZIOA**).

Bestalde, zerrendetan sartuko dira urrira arte epetik kanpo izena emateko heltzen diren eskaera berriak, betiere azken lekuan. Dena den, eskaera berri horiek soilik erabiliko dira uko egin ondoren libre geldi daitezkeen lekuak estaltzeko.

3

4. JENDAURREKO ARRETARAKO LEKUA ETA ORDUTEGIA

EGUESIBARKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA (informazioa eta inprimakiak).

Olazko parkea k., zk.g. 31.620 Olatz, Eguesibar (Nafarroa).

Tel.: 948 33 79 76; e-posta: emusica-musikae@egues.es

Ordutegia: asteleheneetik ostiralera, 11:30etik 13:30era, eta 17:30etik 20:00etara.

5. AURRETIK IZENA EMATEKO ETA MATRIKULATZEKO PROZEDURA.

AURREKO URTEKO IKASLEAK (M.H.-KO 4. mailakoak izan ezik): MATRIKULA BERRITZEA

Irakasle-tutoreak emanen dion inprimakia bete, eta irakasle berari itzuli beharko dio sinaturik (Musika Hastapeneko ikasleek izan ezik, horiek idazkaritzan aurkeztu beharko baitute inprimakia).

OHARRAK:

- Matrikularen kobrantza helbideratu nahi ez dutenek matrikularen kuota Eguesibarko Udalaren bankuko kontu korrontean sartu izanaren agiria atxiki beharko dute. Kuota hura inprimakian agertzen da.
- Aurreko ikasturteko datuetan aldaketarik badago, hiruhilekoko kuoten helbideratze agindua atxiki beharko zaio matrikula inprimakiari, eta SOILIK KASU HORRETAN.
- Kuota akademikoetan tarifa hobaridunak eskatzen badira, ordenantzan xedatutako dokumentuak sartu beharko dira Udalaren Erregistroan, baldin eta Udalaren beste alor batek antolatutako jarduera batean lehenago aurkeztu ez badira, bederen.

B) GAINERAKO IKASLEAK: **AURRETIK IZENA EMATEA**

Behar den inprimakia bete beharko da, izena ematerakoan hautatu nahi diren aukerak zehazturik, aukera kopuruan batere mugarik gabe. Jarraian, idazkaritzan aurkeztu, edo, bestela, fax edo e-posta bidez igorri beharko da, behar bezala sinaturik betiere.

OHARRAK:

- Honako kasu hauetan aurretik eman beharko da izena: alde batetik, Musika Hastapeneko 4. mailan aurreko urtean ikasi, eta II. mailako 1. kurtsora joanen diren ikasleak, baldin eta musikatresna aldatu nahi badute, eta, bestetik, bigarren musikatresna bat hautatzen duten aurreko urteko ikasleak. Hala ere, garai desberdinetan egingen da (1. eta 3. puntuak ikusi).
- Musika taldea modalitatea soilik ikasteko eskolan sartu nahi diren ikasle berriek gaitasun proba bat gainditu beharko dute matrikula egin baino lehen, betiere leku librerik badago.
- Kantua ikasgai mailaketa proba bat egingen da ikasgai horretako zerrenda egiteko. Ahal den neurrian, Ibarrean erroldatutako ikasleek lehentasuna izanen dute.

C) **BEHIN BETIKO MATRIKULA EGITEA.**

Hurrengo protokoloari jarraitu beharko diote alde aurretik izena emanik lekua lortu duten interesdunek (aurreko atalean zehaztutako kasuak).

Udalaren Musika Eskolako idazkaritzan inprimakia hartu beharko dute, lekua lortu dutela egiaztatzen duena.

2. Matrikularen kopurua Eguesibarko Udalaren kontu korrontean sartu beharko dute. Matrikulazio inprimakian dago kontu korronte hura. Era berean, ikaslearen izena jarri beharko da kontzeptuan. Musikatresnaz aldatu edo bigarren musikatresna batean matrikulatzen diren aurreko urteko ikasleek ez dute halakorik egin beharko.

3. Zehaztutako ordutegian matrikula inprimakia, behar bezala beteta, aurkeztu beharko dute Musika Eskolan. Bestela, fax edo e-posta bidez igortzen ahalko da inprimakia, behar bezala sinaturik. Betiere matrikularen kuota bankuan sartu izanaren agiria atxiki beharko da. Ikasle berriek txartel neurriko bi argazki, eta NANaren edo familia liburuaren behar den orrialdearen fotokopia atxiki beharko dituzte. Helbideratze agindua atxiki beharko da, gainerako kuotak helbideratu nahi badira.

OHARRAK:

- Musikatresna batzuetan edo Musika Hastapeneko talde batzuetan lekua lortu duten ikasleek azkenik hautatu duten aukera jarri beharko dute matrikularen inprimakian, eta nahitaez uko egin beharko diete zozketan lortutako gainerako aukerei.

6. LEKUAK ESLEITZEA. LEHENTASUN HURRENKERA ETA BESTE BALDINTZA BATZUK.

- Lekuak lortzeko lehentasun hurrenkera hauxe izanen da:

ESKABIDE GUZTIETARAKO, MUSIKA HASTAPENEKORAKO IZAN EZIK:

Aurreko urteko ikasleak espezialitate horretan.

2. Musika Hastapeneko 4. maila ikasi, eta musikatresnan hasiko diren aurreko urteko ikasleak.

3. Musikatresnaz aldatu nahi duten ikasle berriak (erroldatuak) eta aurreko urteko ikasleak, adin multzoen arabera, honela: Lehenbiziko 2 lekuak 7 eta 8 urte bitarteko ikasleendako; hurrengo 2 lekuak 9 eta 13 urte bitarteko ikasleendako; hurrengo plaza 14 urtetik gorako ikasleendako; hurrengo lekuak: hasierara itzuli, eta horrela gainerakoak.

4. Bigarren musikatresna ikasi nahi duten aurreko urteko ikaslek, azken ikasturteko kalifikazioen hurrenkera (musikatresna nagusiaren 3. mailan eta musika hizkuntzan "oso ongi" kalifikazioarekin gainditu dutenek soilik izanen dute aukera hori).

5. Atal baten barnean berdinketa gertatzen bada, jendaurreko zozketa egingen da.

MUSIKA TALDEA SOILIK HAUTATZEA: aukera hori izateko gutxieneko adina: 2021an 16 urte beteta izatea. Abesbatzetan sartzeko, 10 urte izan behar da gutxienez.

Ikasle berriak (mailaketa proba aldeztatik egina) edo aurreko urteko ikasleak, betiere II. mailako ikasgai guztiak eta mailaketa proba gainditu badituzte (ikasle hauek aurreko urteko ikasleen izaera galduko dute). Proba gainditu ondoren lekuak esleitu dira, proba horretan lortutako puntuazioaren arabera.

B) MUSIKA HASTAPENEN TALDEETAN SARTZEKO

Talde horretako aurreko urteko ikasleak.

2. Taldeztatu nahi duten Musika Hastapeneko aurreko urteko ikasleak.

3. Eguesibarren errolatutako ikasle berriak.

4. Atal baten barnean berdinketa gertatzen bada, jendaurreko zozketa egingen da.

- Maiatzaren 3an musikatresnen esleipena egin ondoren, esleipendun bakoitzak bi aukera izanen ditu:
 - 1. AUKERA: ezarritako epearen barnean matrikula egitea. (MATRIKULA 1. DEIALDIAN);
 - 2. AUKERA: ez matrikulatzea, lortutako lekuari uko eginez, itxaron zerrenda batean egoteko eta ITXARON ZERRENDA BIDEZKO MATRIKULA bat lortu ahal izateko.

- Nahiz eta AURRETIK IZENA EMAN, maiatzaren 6an inongo musikatresnatan matrikulatu ez diren Musika Hastapeneko 4. mailako ikasleak itxaron zerrendetan sartuko dira, ikasle berrien aurreko lekuetan.

- Maiatzaren 25ean jendaurreko zozketa eginik, leku baten edo gehiagoren esleipendunek bi aukera izanen dituzte:
 - 1. AUKERA: epearen barnean leku BATEAN behin betiko matrikula egitea, egokituko zitzaizkion gainerako lekuei eta itxaron zerrendei uko eginik (MATRIKULA 1. DEIALDIAN);
 - 2. AUKERA: ez matrikulatzea, zozketa bidez egokituko zitzaizkion lekuei uko eginez, itxaron zerrenda batean egoteko eta ITXARON ZERRENDA BIDEZKO MATRIKULA bat lortu ahal izateko.

- Espezialitate batean edo Musika Hastapeneko talde batean leku liberrik geldituz gero, itxaron zerrendan eskainiko da leku hori, eta, horretarako, telefonoz ohartaraziko zaio interesdunari, 24 orduko epean behin betiko matrikula egin dezan. Pertsona horrek libre dagoen lekuari uko egiten badiu, uko egiteko inprimakia bide elektronikoz bete beharko du. 24 orduko epean matrikula egin ezean edo leku horri uko egin ezean, itxaron zerrenda horretatik kanpo geldituko da. Era berean, zerrendaren txandari jarraituko zaio, eta hurrengo interesdunarekin berdintzat jotuko da.

- Lekua ordutegiak itxita daudenean edo ikasturtea hasita dagoenean libre gelditzen bada, lekua une hartan libre dauden unekin eskainiko da, eta, horregatik, interesdunaren nahia ez da kontuan hartuko. Interesduna ikasgai

nagusien asteko saio batera edo bestera ezin bada joan, ezin izanen du matrikula egin.

- **AURREKO URTEKO IKASLEAK DITUEN LEHENTASUNAK GALTZEA**, ikasle berrien gainera lekua lortzeko. Honako xedapen hauek ezarriko dira:
 - A) AURREKO URTEKO IKASLEAK bere lehentasunak galduko ditu, martxoaren 21etik apirilaren 4ra matrikula berritzen **ez** badu. M.H.-ko 4. maila egin badu, ez du lehentasunik galduko.
 - B) M.H.-ko 4. MAILA IKASI DUEN IKASLEAK aurreko urteko ikasleek duten lehentasuna galduko du, apirilaren 27tik 28ra izena ematen **ez** badu.

7. BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK:

- PUBLIZITATEA: Eskolaren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da.
- ESKAINITAKO ESPEZIALITATEAK: gaur egungo espezialitateak eskainiko dira:
 - Musika Hastapena
 - Musika Hizkuntza
 - Harmonia aplikatua, 1. eta 2. mailak
 - Musika Estiloak, 1. eta 2. mailak
 - Inprobisazioa, 1. eta 2. mailak
 - Pianoa
 - Gitarra
 - Gitarra elektrikoa
 - Akordeoa
 - Klarineta
 - Zeharkako flauta
 - Saxofoia
 - Tronboia
 - Tronpeta
 - Biolina
 - Txelo
 - Perkusioa
 - Kantua
 - Abesbatza
 - Ahots taldea
 - Orkestra
 - Banda
 - Comboak
 - Akordeoi taldea
 - Gitarra taldea
 - Hari orkestra
- TASA AKADEMIKOAK: "Udalaren Musika Eskolako ikastaroetan izena eman eta parte hartzeko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza fiskala" ezarriko da (<https://www.valledeegues.com/educacion/escuela-de->

musica/)

- ORDUTEGIAK ETA TALDEAK: Musika Hastapenean eta Sarbideko Musika Hizkuntzan izan ezik, taldeak eta ordutegiak matrikulazio prozesuaren ondotik lortzen diren datuen arabera antolatuko dira, betiere zentroaren Pedagogia Planeko irizpide pedagogikoak kontuan hartuz eta familien beharretara ahalik eta gehiena egokituz. Musika Hastapenean (3 eta 6 urte bitarteko ikasleak) eta Sarbideko Musika Hizkuntzan taldeak eta ordutegiak aurretik ezarriko dira.
- EPETIK KANPO MATRIKULATZEA: zerrendak agortu badira, urria arte epetik kanpo matrikulatzeko aukera egonen da, betiere taldeak osatzeko edo bajak betetzeko. Noiz heldu, huraxe izanen da leku horiek betetzeko erabiliko den irizpide bakarra, eta aldi berean heltzen badira, jendaurreko zozketa egingen da.